

Kolonizatuaren ezagugarria

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI»

(Donostia, 1929)

Idazlea, politikaria, hizkuntzalaria, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, euskararen alor guztiak jorratu ditu, ia euskal aldizkari guztietan idatzi du: idazle oparo eta nobelagile eta hizkuntzalari garrantzitsua, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Peru Leartzako* (1960), *Elsa Scheelen* (1969), *Haizeaz bestaldetik* (1979) idatzi ditu besteak beste. Bere lehen nobela inglesera itzulita eta argitaratuta dago, eta beste zenbait liburu gaztelera ere argitaratu dira. Saiakeraren alorra ere asko landu du, nagusiki artikulugintzaren bidez, eta politika izan da jorratu duen alor horietako bat. A. Memmiren *Kolonizatuaren ezagugarria* liburuko bigarren zatiko lehen atala aukeratu du itzultzaileak antologia honetarako.

Portrait du colonisé

ALBERT MEMMI

I. Portrait mythique du colonisé

Naissance du mythe

Tout comme la bourgeoisie propose une image du prolétaire, l'existence du colonisateur appelle et impose une image du colonisé. Alibis sans lesquels la conduite du colonisateur, et celle du bourgeois, leurs existences mêmes, sembleraient scandaleuses. Mais nous évitons la mystification, précisément parce qu'elle les arrange trop bien.

Soit, dans ce portrait-accusation, le trait de paresse. Il semble recueillir l'unanimité des colonisateurs, du Libéria au Laos, en passant par le Maghreb. Il est aisé de voir à quel point cette caractérisation est *commode*. Elle occupe bonne place dans la dialectique : ennoblissement du colonisateur – abaissement du colonisé. En outre, elle est *économiquement fructueuse*.

Rien ne pourrait mieux légitimer le privilège du colonisateur que son travail; rien ne pourrait mieux justifier le dénuement du colonisé que son oisiveté. Le portrait mythique du colonisé comprendra donc une incroyable paresse. Celui du colonisateur, le goût vertueux de l'action. Du même coup, le colonisateur suggère que l'emploi du colonisé est peu rentable, ce qui autorise ces salaires invraisemblables.

Il peut sembler que la colonisation eût gagné à disposer d'un personnel émérite. Rien n'est moins certain. L'ouvrier qualifié, qui existe parmi les simili-colonisateurs, réclame une paie trois ou quatre fois supérieure à celle du colonisé; or il ne produit pas trois ou quatre fois plus, ni en quantité ni en qualité : *il est plus économique d'utiliser trois colonisés qu'un Européen* : Toute entreprise

Kolonizatuaren ezagarrria

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI»

I. Kolonizatuaren mitozko irudia

Mitoaren jaiotza

Burgesiak langilearen irudi alegiazko bat proposatzen eta hedatzen duen bezala, kolonizatzailearen izateak kolonizatuaren irudi bat eskatzen eta onar erazten du. Itzurbide hau gabe, kolonizatzailearen jokabideak, burgesiarenak, eta bion bizimoduek berek, lotsagarri lirudikete. Guk hemen, halere, mitogintza hori ager eraziko dugu, hain zuzen gauzak ongi-egi orrazten eta konpontzen dituelako.

Eman dezagun, salaketa-irudi horri gagozkiolarik, nagikeriaren arazoa. Itxura denez, Liberia-tik hasi eta Maghreb-etik Laos-eraino, kolonizatzaile guztien adostasuna biltzen du. Iduribide hori noraino den *erosoa* erreparratzea, ordea, erraza da. Kolonizatzailearen gorantza kolonizatuaren apalkuntza dialektikan parte funtsezko bat betetzen du. *Ekonomiaren mailan*, gainera, *onurakorra da*.

Ezerk ez lezake hobeki garbi kolonizatzailearen hobaria, horren lanak baino; ezerk ez lezake, berebat, hobeki zuzenets kolonizatuaren txirotasuna, beroren lanik ezak baino. Kolonizatuaren mitozko irudiak, horretara, besteak beste, ezin sinetsizko alferkeria agertuko du. Kolonizatuarenak, berriz, ekintzarako nahi prestua. Horrekin batera, kolonizatuaren erabilera oso onuragarri eta fruitukorra ez dela idarokitzen du kolonizatzaileak; eta horrek, noski, bidezko egiten dituela ezin sinetsizko alokairu horiek.

Langileria trebeago eta jakintsuago izanez gero, kolonikuntzak berak irabaz zezakeela pentsa bide liteke. Hori, ordea, ez da batere segurua. Erdipurdiko kolonizatzaileen artean badago langile eskolaturik; baina kolonizatzaileen artean badago langile eskolaturik; baina kolonizatuaren arteko bere kideak baino hiruzpalau aldiz lantsari handiagoak eskatzen ditu. Hots, ez du hiruzpalau aldiz gehiago ekartzen Europatarrak ekartzen, ez

demande des spécialistes, certes, mais un minimum, que le colonisateur importe, ou recrute parmi les siens. Sans compter les égards, la protection légale, justement exigés par le travailleur européen. Au colonisé, on ne demande que ses bras, et il n'est que cela : en outre, ces bras sont si mal cotés, qu'on peut en louer trois ou quatre paires pour le prix d'une seule.

A l'écouter, d'ailleurs, on découvre que le colonisateur n'est pas tellement fâché de cette paresse, supposée ou réelle. Il en parle avec une complaisance amusée, il en plaisante; il reprend toutes les expressions habituelles et les perfectionne, il en invente d'autres. Rien ne suffit à caractériser l'extraordinaire déficience du colonisé. Il en devient lyrique, d'un lyrisme négatif : le colonisé n'a pas un poil dans la main, mais une canne, un arbre, et quel arbre ! un eucalyptus, un thuya, un chêne centenaire d'Amérique ! un arbre ? non, une forêt ! etc.

Mais, insistera-t-on, le colonisé est-il vraiment paresseux ? La question, à vrai dire, est mal posée. Outre qu'il faudrait définir un idéal de référence, une norme, variable d'un peuple à l'autre, peut-on accuser de paresse un peuple tout entier ? On peut en soupçonner des individus, même nombreux dans un même groupe; se demander si leur rendement n'est pas médiocre; si la sous-alimentation, les bas salaires, l'avenir bouché, une signification dérisoire de son rôle social, ne désintéresse pas le colonisé de sa tâche. Ce qui est suspect, c'est que l'accusation ne vise pas seulement le manoeuvre agricole ou l'habitant des bidonvilles, mais aussi le professeur, l'ingénieur ou le médecin qui fournissent les mêmes heures de travail que leurs collègues colonisateurs, enfin *tous* les individus du groupement colonisé. Ce qui est suspect, c'est *l'unanimité* de l'accusation et la *globalité* de son objet; de sorte qu'aucun colonisé n'en est sauvé, et n'en pourrait jamais être sauvé. C'est-à-dire : *l'indépendance de l'accusation de toutes conditions sociologiques et historiques.*

En fait, il ne s'agit nullement d'une notation objective, donc différenciée, donc soumise à de probables transformations, mais d'une *institution* : par son accusation, le colonisateur institue le colonisé en être paresseux. Il décide que la paresse est *constitutive* de l'essence du colonisé. Cela posé, il devient évident que le colonisé, quelque fonction qu'il assume, quelque zèle qu'il y déploie, ne serait jamais autre que paresseux. Nous en revenons tou-

zenbatasunez ez nolakotasunez; *merkeago da biru kolonizatu erabiltzea Europatar bakar bat baino*. Edozein lanetarako behar dira espezialistak, bai, baina ahalik eta gutxienak hobe; eta bere herrikideen artean hautatzen ditu kolonizatzaileak. Eta, horrez gainera, eta zuzena denez, europatar langileak eskatzen dituen begiramentuez eta lege-babesaz. Kolonizatuari, berriz, besoak eskatzen zaizkio, eta besterik ez aipatzen: beso horiek, gainera, hain daude gutxietsirik, pare bakar baten ordeztu hiruzpalau beso-pare alogera daitezkeela.

Entzuterakoan, dena dela, alferkeria hori (nahiz egiazkoa nahiz alegiazko) dela-ta, horren hasarre ez dagoela aurkitzen da. Kolonizatzaileak umore onean aipatzen du irriz, hartaz trufatzen dela; kolonizatuaren zer den adierazteko eguneroko hiztegia erabiltzen du etengabe, baina baita osatzen, baita berriak asmatzen ere. Ezer ez aski kolonizatuaren akats harri-garriak biltzeko. Liriko eta bihozpera agertzen da, baina lirismo ukakorren alderdian: kolonizatuak ez du ilerik esku-ahurrean, baina kanabera gaitz bat, arbola bat. Eta nolako zuhaitza den, alajainkoa! Eukaliptus bat, thuia bat, Ameriketako haritzondo zahar bat...Nik dakita zer? Zuhaitz bat ote? Ez: oihan oso bat!

Baina, benetan ote da alferra kolonizatuaren? Galdera gaizki egina da, egia esateko. Alde batetik helburu-neurri bat finkatu behar litzateke aurrenik, herri batetik bestera aldagarria; eta bestetik, herri oso bat sala ote daiteke alferkeriaz? Gizabanakoak, pertsonak alegia, sala daitezke, baita beharbada talde berean oso ugariak direnean ere; beroien lan-ekarpena motela ez ote denez galdegin daiteke; eta gaizki jateak, alokairu apalek, etorkizunik ezak, gizarte-patuaren eskasak, kolonizatuaren bere eginbeharretatik aldentzen ez ote duten soma.

Errezelagarria, bestalde, hauxe da; salaketa horrek nekazaritzako morroina eta hiri-inguruetakoko biztanlea ez-ezik, irakaslea, ijenerua eta osagileak ere erasotzen dituela; nahiz hauek kolonizakideek hainbat ordu lanean pasatzen badute ere. Salaketak, hitz batez, koloniko gizataldeko *pertsona guztiak* erasotzen ditu. Errezelagarria hauxe da: salaketaren *bateratasuna* eta erasotakoaren *orokortasuna*: denak erasorik, eta batera; eta, hortaz, kolonizaturik batere ez salbatzea, batere inoiz ezin salbatzea. Hau da: *salaketa ez datzeko inolako soziologi edo kondaira baldintzari*.

Ez dago horretan guztian, beraz, oharketa objetiborik batere: horrelakorik balego, liferentziarik baliteke, eta aldakuntzen arabera birmoldatuz joan beharko luke irudiak. Horretan guztian, aldiz, *instituzio* bat dago, legeketak: salakundearen bitartez kolonizatzaileak alfertzat legetzen du kolonizatuaren. Hori horrela, gauza agiri bilakatzen da kolonizatuaren, zernahi lan-postuz jabeturik, nolana hiko lehian lanegiteagatik ere, ez dela sekula alfer bat baizik izango. Beti, beraz, arrazakeriara bihurtzen gara; ezen hau

jours au racisme, qui est bien une substantification, au profit de l'accusateur, d'un trait réel ou imaginaire de l'accusé.

Il est possible de reprendre la même analyse à propos de chacun des traits prêtés au colonisé.

Lorsque le colonisateur affirme, dans son langage, que le colonisé est un débile, il suggère par là que cette déficience appelle la protection. D'où, sans rire – je l'ai entendu souvent – la notion du protectorat. Il est dans l'intérêt même du colonisé qu'il soit exclu des fonctions de direction; et que ces lourdes responsabilités soient réservées au colonisateur. Lorsque le colonisateur ajoute, pour ne pas verser dans la sollicitude, que le colonisé est un arriéré pervers, aux instincts mauvais, voleur, un peu sadique, il légitime ainsi sa police et sa juste sévérité. Il faut bien se défendre contre les dangereuses sottises d'un irresponsable; et aussi, souci méritoire, le défendre contre lui-même ! De même pour l'absence de besoins du colonisé, son inaptitude au confort, à la technique, au progrès, son étonnante familiarité avec la misère : pourquoi le colonisateur se préoccuperait-il de ce qui n'inquiète guère l'intéressé ? Ce serait, ajoute-t-il avec une sombre et audacieuse philosophie, lui rendre un mauvais service que de l'obliger aux servitudes de la civilisation. Allons ! Rappelons-nous que la sagesse est orientale, acceptons, comme lui, la misère du colonisé. De même encore, pour la fameuse ingratitude du colonisé, sur laquelle ont insisté des auteurs dits sérieux : elle rappelle à la fois tout ce que le colonisé doit au colonisateur, que tous ces bienfaits sont perdus, et qu'il est vain de prétendre amender le colonisé.

Il est remarquable que ce tableau n'ait pas d'autre nécessité. Il est difficile, par exemple, d'accorder entre eux la plupart de ces traits, de procéder à leur *synthèse objective*. On ne voit guère pourquoi le colonisé serait à la fois mineur et méchant, paresseux et arriéré. Il aurait pu être mineur et bon, comme le bon sauvage du XVIII^e siècle, ou puéril et dur à la tâche, ou paresseux et rusé. Mieux encore, les traits prêtés au colonisé s'excluent l'un l'autre, sans que cela gêne son procureur. On le dépeint en même temps frugal, sobre, sans besoins étendus *et* avalant des quantités dégoûtantes de viande, de graisse, d'alcool, de n'importe quoi; comme un lâche, qui a peur de souffrir *et* comme une brute qui n'est arrêtée par aucune des inhibitions de la civilisation, etc. Preuve supplémentaire qu'il est inutile de chercher cette cohérence ailleurs que chez le colonisateur lui-même. A la base de toute la construction,

salatuaren alderdi egiazko edo alegiazkoen finkaera eta betirako legeketa baita, eta salatzailearen fagoretan, noski.

Azterpide berbera egin liteke berriro kolonizatuaren lepora egotzi ohi diren ezagugarri guztien arabera.

Kolonizataileak bere hizkeran kolonizatu zozoa dela esaten duenean, akats honek babeseta eta zaindaritza eskatzen dituela adierazi nahi du. Eta horretan funtsatzen da, farrerik gabe, «protektorado» delakoan ideia, babes-herriena (neronek horrela entzuna askotan). Kolonizatuaren beraren interesetan komeni da bera buruzagitzaren eginkizunetatik urruntzea; eta erantzukizun larriak kolonizatailearen eskuetan ipintzea. Eta kolonizataileak, artaren larregian ez erortzeko, kolonizatu atzeratu gaiztoa dela erasten duenean; grina makur, lapur eta doilor xamarra dela, bere polizi-lana eta gogortasuna zuzenesten ditu. Bidezkoa baita buruberoen kirtinkeria arriskutsuetatik begiratzea; baita (kez karen bidezkoa!) norberaren buruaren alde jokatzeko! Gauza bera kolonizatuaren beharrik ezaz omen, konforta, teknika, eta aurrerapenekiko erakusten duen desegokitasunez, gabeziarekiko ezagun omen duen ohitura harrigarriaz: zergatik kezkatuko ote litzateke kolonizatailea, kaltearra, bitima, pairatailea bera, kolonizatu alegia, sobera kezkatu agertzen ez denean? Zuhurtzia beltz ausartaz erantsi ohi duenez, zerbitzu txar bat egitea litzateke: alegia, zibilizazioaren beharretara bortxatzea. Hortaz! Ez dezagun ahantz zuhurtzia ekaldetar bertutea dela, eta berek bezala guk geronek ere onar dezagun zuhurki kolonizatuaren erumestasan hori. Badago, bestalde, kolonizatuaren esker-txar famatu hori, idazle guztiek, behin eta berriz ahobatez aipatua: batera gogorazten digu joera itsusi horrek bai kolonizataileari kolonizatuak zor dion guztia, bai, ongi guztiok, alferrik galduak direla; eta kolonizatu erremendiatzeko asmoak oro alferrikako direla.

Harrigarria da presentakera horrek besteren beharrik ez izatea. Zail da, gonbarazio baterako, alderdi horietatik gehienak elkartzea, bilduma gauzazkoa, sintesi objetiboa alegia, lortuz. Ez da batere gauza ageria, esate baterako, zergatik eta nola izan daitekeen kolonizatu batera ume-zirtzila eta gaiztoa, alferra eta atzeratu. Umea eta prestua batera izan zitekeen, esate baterako, XVIII. mendeko gizon basa haren antzera; edo haurra izan, baina lanetako gogorra eta zaildua. Edo-ta alferra eta maltzurra batera. Oraindik ere hobeki: kolonizatuaren lepora aurtikiak diren ezagugarriok elkar ukatzen dute, baina honek ez dio salatzaileari enbarazo mendrenik ere egiten. Bateran presentatzen zaigu kolonizatu jan-xuhur eta janari behar txikitakotzat, eta *horrekin batera* okela, koipe, alkol eta zernahi keta okaztagarrien jaletzat. Bateran esaten zaigu koldarra dela, ezer jasaten ez dakiela; baita zibilizazioaren debekuek gelditu erazten ez duten alimaletzat. Alferrik da, berriro ere, eraso horien arteko gotortasuna kolonizatai-

enfin, on trouve une dynamique unique : celle des exigences économiques et affectives du colonisateur, qui lui tient lieu de logique, commande et explique chacun des traits qu'il prête au colonisé. En définitive, ils sont tous *avantageux* pour le colonisateur, même ceux qui, en première apparence, lui seraient dommageables.

La désbhumanisation

Ce qu'est véritablement le colonisé importe peu au colonisateur. Loin de vouloir saisir le colonisé dans sa réalité, il est préoccupé de lui faire subir cette indispensable transformation. Et le mécanisme de ce repétrissage du colonisé est lui-même éclairant.

Il consiste d'abord en une série de négations. Le colonisé *n'est pas ceci, n'est pas cela*. Jamais il n'est considéré positivement; ou s'il l'est, la qualité concédée relève d'un *manque* psychologique ou éthique. Ainsi pour l'hospitalité arabe, qui peut difficilement passer pour un trait négatif. Si l'on y prend garde on découvre que la louange est le fait de touristes, d'Européens de passage, et non de colonisateurs, c'est-à-dire d'Européens installés en colonie. Aussitôt en place, l'Européen ne profite plus de cette hospitalité, arrête les échanges, contribue aux barrières. Rapidement il change de palette pour peindre le colonisé, qui devient jaloux, retiré sur soi, exclusif, fanatique. Que devient la fameuse hospitalité ? Puisqu'il ne peut la nier, le colonisateur en fait alors ressortir les ombres, et les conséquences désastreuses.

Elle provient de l'irresponsabilité, de la prodigalité du colonisé, qui n'a pas le sens de la prévision, de l'économie. Du notable au fellah, les fêtes sont belles et généreuses, en effet, mais voyons la suite ! Le colonisé se ruine, emprunte et finalement paye avec l'argent des autres ! Parle-t-on, au contraire, de la modestie de la vie du colonisé ? de la non moins fameuse absence de besoins ? Ce n'est pas davantage une preuve de sagesse, mais de stupidité. Comme si, enfin, tout trait reconnu ou inventé *devait* être l'indice d'une négativité.

Ainsi s'effritent, l'une après l'autre, toutes les qualités qui font du colonisé un homme. Et l'humanité du colonisé, refusée par le colonisateur, lui devient en effet opaque. Il est vain, prétend-il, de chercher à *prévoir* les conduites du colonisé (« Ils sont imprévisibles ! »... « Avec eux on ne sait jamais ! »). Une étrange et inquié-

leagandik at bilatzea. Eraikuntza horren oinarrian, azkenik, bultzada bakar bat aurki daiteke: kolonizatzailearen helburu ekonomiko eta arimabarnekoa. Horiek dira logikaren ordaria, eta horiek azaltzen eta argitzen kolonizatuari egotzen zaizkion ezagugarriak. Azken finean, denak dira kolonizatzailearen *aldeko*; baita lehenago begiraldian kaltegarri itxura dutenak ere.

Desgizakuntza

Bost axola zaio kolonizatzaileari kolonizatua egiazki zer den. Hau bere egian aurkitu eta bildu nahi izan beharrian, berori aldatu eta eragin beharrak mogitzen du bereziki. Eta kolonizatuaren bir-moldaketa hori oso da argigarria.

Lehen-lehenik ukaera mordo luzea da: kolonizatua *ez da* hau, *ez da* hori, *ez da* hura. Baiespenen aldetik ez da behin ere hartzen; eta hartzen delarik, psikologiaren edo etikaren mailan *butsune* bat salatzeko izaten da. Hala nola, arabitar ostatu-emaiza erraza, nahiz hau oso nekez presenta badaiteke joera itsusi gisa. Arretaz begiratu gero, gorantzak turistengandik heldu direla aurkitzen da; bidenabar han gertatu diren Europatarrengandik, eta ez kolonizatzaileengandik, alegia ez kolonian finkaturik bizi diren Europatarrengandik. Hara eta berehala, akabo ostatu-emaizaren probetxua: elkarrekiko gurutzamenduak akabo, eta bi multzoen arteko hesiak gora. Paleta berehala truka, eta kolonizatua oso bestela pintatzen hasten da: goganbehartsu, bernekoi, hertsu, fanatikoa. Zer bilakatu da ostatu-emaiza zabal hura? Ukatu ezinik, alderdi ilunak eta ondorio deskalabratuak ager erazten hasten da.

Ateak aisa zabaltzeko joera, horrela, arinkeriaren, esku-zabalkeriaren, etxekalte-keriaren ondorio bihurtzen da, geroaren eta burubidearen zentzurik eza. Jauntxoengandik hasi eta fellah-enganaino, ederrak dira jaiak, oparoak, baina segida... nolakoa? Kolonizatuak lurjo egiten du, bahiturik eskatzen, eta azkenean besteren diruaz zorrak kitatzen! Eman dezagun, alderantziz, kolonizatuaren bizimoduaren apala aipatu dela, beharrik-ez ezagun hori gogorazi dela. Zer errepikatuko da? Ez dela hori ere, kasu, zuhurtzi-alderdia, zozokeriazkoa baizik. Aurkitutako edo asmatutako ezaugarri *guztiak* eskasia eta hutsunearen seinale bailiren.

Horrela kondatzen dira, herronka, kolonizatua zigortzen duten dohain guztiak. Eta kolonizatuaren gizatasuna, horrela, kolonizatzaileak ukatua, okil bihurtzen zaio, igaro ezina. Alferrik da-dio-kolonizatuaren *jokabideak alde zaurretik somatzen saiatzea* («Somatu-ezinak dira horiek»... «Berekin ez dago ezer inoiz jakiterik»). Bihozkadek eta oldekeriak gidatzen bide dute kolonizatua, harritzeko eta kezkatzeko moduan. Eta, egia esan, oso bitxia

tante impulsivité lui semble commander le colonisé. Il faut que le colonisé soit bien étrange, en vérité, pour qu'il demeure si mystérieux après tant d'années de cohabitation... ou il faut penser que le colonisateur a de fortes raisons de tenir à cette illisibilité.

Autre signe de cette dépersonnalisation du colonisé : ce que l'on pourrait appeler *la marque du pluriel*. Le colonisé n'est jamais caractérisé d'une manière différentielle; il n'a droit qu'à la noyade dans le collectif anonyme. (« *Ils* sont ceci... *Ils* sont tous les mêmes. ») Si la domestique colonisée ne vient pas un matin, le colonisateur ne dira pas qu'*elle* est malade, ou qu'*elle* triche, ou qu'*elle* est tentée de ne pas respecter un contrat abusif. (Sept jours sur sept; les domestiques colonisés bénéficiant rarement du congé hebdomadaire, accordé aux autres.) Il affirmera qu'on « ne peut pas compter sur *eux* ». Ce n'est pas une clause de style. Il refuse d'envisager les événements personnels, particuliers, de la vie de sa domestique; cette vie dans sa spécificité ne l'intéresse pas, sa domestique n'existe pas comme *individu*.

Enfin le colonisateur dénie au colonisé le droit le plus précieux reconnu à la majorité des hommes : la liberté. Les conditions de vie faites au colonisé par la colonisation n'en tiennent aucun compte, ne la supposent même pas. Le colonisé ne dispose d'aucune issue pour quitter son état de malheur : ni d'une issue juridique (la naturalisation) ni d'une issue mystique (la conversion religieuse) : le colonisé n'est pas libre de se choisir colonisé ou non colonisé.

Que peut-il lui rester, au terme de cet effort obstiné de dénaturation ? Il n'est sûrement plus un *alter ego* du colonisateur. C'est à peine encore un être humain. Il tend rapidement vers l'objet. A la limite, ambition suprême du colonisateur, il devrait *ne plus exister qu'en fonction des besoins du colonisateur, c'est-à-dire s'être transformé en colonisé pur*.

On voit l'extraordinaire efficacité de cette opération. Quel devoir sérieux a-t-on envers un animal ou une chose, à quoi ressemble de plus en plus le colonisé ? On comprend alors que le colonisateur puisse se permettre des attitudes, des jugements tellement scandaleux. Un colonisé conduisant une voiture est un spectacle auquel le colonisateur refuse de s'habituer; il lui dénie toute normalité, comme pour une pantomime simiesque. Un accident, même grave, qui atteint le colonisé, fait presque rire. Une mitraille dans une foule colonisée lui fait hausser les épaules. D'ailleurs, une mère

izan behar du kolonizatuak, horrenbeste urtez haren ondoan kolonizatzailea bizi ondoren, hain izkutu eta uler-ezin gerta dakion... edo, bestela, kolonizatzaileak arrazoin sendoak badituzkeela pentsatu beharko da ezin irakur horretan horrela kokatzeko.

Hona hemen orain kolonizatuaren desnorketa edo nor-galera horren beste seinale bat: *anitzaren marka* bataia litekeena agian. Kolonizatu ez da sekula berezten liferentzi-bidez; baina izenik gabeko mordotasunean itoa eta nahasia agertzen da, («*Horiek* hau eta hori dira... *Horiek* beti bat»). Neskame kolonizatu goiz batetan ez badator, ez du kolonizatzaileak esango *bera* dagoela gaisorik, neskamea alegia; ez du esango *bera* arrakeroa dela, edo tratu zailegia betetzeko gogorik ez duela. (Zazpi astegunetan zazpi lanegun: neskame kolonizatuak bakanka baizik ez dute besteei eman ohi zaien asteroko pausaldia gozaten). Eta hau esango du: «Ezin daiteke *horiekin* konda». Ez pentsa gero hizkera-kontu hutsa denik. Ez horixe. Kolonizatzaileak ez ditu ikusi nahi bere neskamearen biziera-gertakariak banan-banan, eta pertsonal eta pribatu gisa. Bereztasunean mamitzen den biziera hori ez zaio axola: pertsona gisa, gizabanako gisa, neskamea ez da, izan.

Kolonizatzaileak, azkenik, gizonik gehienei aitortzen eta uzten zaien eskubiderik sakratuena ukatzen zaio kolonizatuari: askatasuna. Kolonizatuaren giroan kolonizatuari ezarri dioten bizimoduan ageri denez, askatasun hori ez da ezertarako kontutan hartua izan. Dagokeenik ere ez da sumatzen. Bere zorigaitz-girotik irteteko, horrela, kolonizatuak ez du atekarik batere: ez eskubidezkoa (hiritarkuntza), ez mistikazkoa (erlijio-truke edo bihurteta). Ez dago kolonizatuaren eskuetan bere burua kolonizatu ala kolonizatzailetzat hautatzea.

Zer atxik ote dezake desagintza tematu eta lehiatsu horren buruan? Dudarik gabe, kolonizatzailearen «alter ego»a ez da. Nekez da gizakume bat. Gauza bilakatzeko abian gertatzen da. Azken buruan, eta kolonizatzailearen xederik gorena betetzekotan, *ez luke izan ere behar kolonizatzailearen beharretatik at; alegia, kolonizatu soil beharko luke biburtu*.

Ageri denez, oso fruitukorra da jokabidea. Gero eta bertago dago kolonizatu alimale, piztia eta gauzetatik. Hots, hauei zertan gagozkieke gu zordun? Honela konprenitu behar da kolonizatzaileak horren jokabide eta irizpide lotsagarriak hartu ahal izatea. Kolonizatu autoa gidatzen ari, esate baterako: horra hor kolonizatzaileak inolaz ere irentsi nahi ez duen ikuskaria: bidezketasun guztia ukatzen dio, ukatu, egintza hori haren eskuetan tximukeria hutsa edo bailitzan. Kolonizatu ukitu duen istripuak, horrela, baita larria denean ere, farregura ematen du. Kolonizatu-oste bat metrailaturik gertatzeak, ere berean, doi-doi ekartzen du besaburuak altxatzeaz beste keinurik. Bere semearen heriotzarengatik negarrez ari den

indigène pleurant la mort de son fils, un femme indigène pleurant son mari, ne lui rappellent que vaguement la douleur d'une mère ou d'une épouse. Ces cris désordonnés, ces gestes insolites, suffiraient à refroidir sa compassion, si elle venait à naître. Dernièrement, un auteur nous racontait avec drôlerie comment, à l'instar du gibier, on rabattait vers de grandes cages les indigènes révoltés. Que l'on ait imaginé puis osé construire ces cages, et, peut-être plus encore, que l'on ait laissé les reporters photographier les prises, prouve bien que, dans l'esprit de ses organisateurs, le spectacle n'avait plus rien d'humain.

La mystification

Ce délire destructeur du colonisé étant né des exigences du colonisateur, il n'est pas étonnant qu'il y réponde si bien, qu'il semble confirmer et justifier la conduite du colonisateur. Plus remarquable, plus nocif peut-être, est l'écho qu'il suscite chez le colonisé lui-même.

Confronté en constance avec cette image de lui-même, proposée, imposée dans les institutions comme dans tout contact humain, comment n'y réagirait-il ? Elle ne peut lui demeurer indifférente et plaquée sur lui de l'extérieur, comme une insulte qui vole avec le vent. Il finit par la reconnaître, tel un sobriquet détesté mais devenu un signal familier. L'accusation le trouble, l'inquiète d'autant plus qu'il admire et craint son puissant accusateur. N'a-t-il pas un peu raison ? murmure-t-il. Ne sommes-nous pas tout de même un peu coupables ? Paresseux, puisque nous avons tant d'oisifs ? Timorés, puisque nous nous laissons opprimer ? Souhaité, répandu par le colonisateur, ce portrait mythique et dégradant finit, dans une certaine mesure, par être accepté et vécu par le colonisé. Il gagne ainsi une certaine réalité et *contribue au portrait réel du colonisé*.

Ce mécanisme n'est pas inconnu : c'est une mystification. L'idéologie d'une classe dirigeante, on le sait, se fait adopter dans une large mesure par les classes dirigées. Or toute idéologie de combat comprend, partie intégrante d'elle-même, une conception de l'adversaire. En consentant à cette idéologie, les classes dominées confirment, d'une certaine manière, le rôle qu'on leur a assigné. Ce qui explique, entre autres, la relative stabilité des sociétés; l'oppression y est, bon gré mal gré, tolérée par les opprimés eux-mêmes. Dans la relation coloniale, la domination s'exerce de peuple à peuple, mais le schéma reste le même. La caractérisation et le

emazte kolonizatuak; senarraz pleini den emazte kolonizatuak, oso oso urrutitik baizik ez diote idarokitzen amaren eta emaztearen oinazea. Oihu desordenatu horiek, keinu bitxi horiek, harengan inoiz urrikirik sortu balitz, hoztu egingo zuketena.

Orain dela gutxi kondatu digu idazle batek, bitxikeriaz ongi baliaturik, ihizirik ezean, hasarre bizian joan erazten zirela bertakoak kaiola handitara, eta bertara indarka sarrerazten. Horrelako kaiolok egiteko burutazioak izatea; areago, fotoak ateratzen utzi izanak, ongi erakusten dute kakoa: eratzaileren gogoan, ikuskari harek ez zuen deusik ere gizaterrenik: gertakaria gizatasunetik at mamitzen zen.

Gezurtaraketa

Kolonizatuaren puskatu-nahi eroa, kolonizatzailearen eskabideetan sortu da. Ez da harritzekoa, hortaz, biei elkarri horren zehazki egokitzea. Zehaztasun horrek, halere, ezin hobeki ezkontze horrek, itxura denez, indartu eta funtsatu bezala egiten du, zuzenetsiz, kolonizatzailearen jokatibidea. Oraindik ere ohargarriago, oraindik ere kaltegarriago, kolonizatuarengan berarengan horrek guztiak esnatzen dituen oihartzunak.

Beti ere bere buruaren irudi horren aurrean paratuta, legeetan eta giza-harreman guztietan irudi horixe proposatua eta irents-erazia, nola nahi duzu errepikarik ez ematea? Ezina liteke arduragabe gelditzea, axolakabe begiratzea, eta kanpotik itsatsia bezala jarraitzea, haizearekin batera hegaldatuko litzatekeen afruntu gisa. Azkenean ezagutu egiten du, ontzat hartzen du, bai, baina gorroto den eguneroko tresna ontzat hartzen den bezala. Salaketak kezkatu egiten du, asaldu egiten du; eta areago hau bere salatzailleari bildur zaiolako, eta indartsu delako funtsean miresten. Ez ote du honek egia hein batez?—dio batzutan bere kolkorako—. Ez ote gara gu guztiok apur batez bederen errudun? Horrenbeste langabe ikusirik, ez ote gara alferrak? Ustelak ere babide gara, geure buruak zanpatzera honela uzten baititugu. Kolonizatzaileak desiratua eta hedatua, mitozko irudi ahalkegarri hori gailendu egiten da, eta kolonizatuak bere buruan nortu eta bizitu egiten du, eta funtsean onartu ere bai. Mamitu egiten da horrela, obratu, eta *kolonizatuaren moldagintzan laguntzen borretara*.

Jokabide hori ez da ez-ezaguna: gezurtaraketa bat da, mistifikazio bat. Klase zuzentzaileen ideialogia, jakina denez, nagusitu egiten zaie hein batez zuzendutako klaseei. Hots, burruka-ideialogiek oro badakarte beti, barruan, etsaiaren irudi bat. Ideialogia hori onartuz, horrela, zapal dutako klaseek, markatu zaien betekizuna ematen dute ontzat. Eta honek azaltzen du, besteak beste, gizarteen iraupena: onetara ala bortxaz, ontzat ematen dute zanpakuntza zanpatuek berek. Kolonikuntzaren mailan, herriak-herriaren

rôle du colonisé occupent une place de choix dans l'idéologie colonisatrice; caractérisation infidèle au réel, incohérente en elle-même, mais nécessaire et cohérente à l'intérieur de cette idéologie. Et à laquelle le colonisé donne son assentiment, troublé, partiel, mais indéniable.

Voilà la seule parcelle de vérité dans ces notions à la mode : complexe de dépendance, colonisabilité, etc. Il existe, assurément – à un point de son évolution –, une certaine adhésion du colonisé à la colonisation. Mais cette adhésion est le résultat de la colonisation et non sa cause; elle naît *après* et non avant l'occupation coloniale. Pour que le colonisateur soit complètement le maître, il ne suffit pas qu'il le soit objectivement, il faut encore qu'il croie à sa légitimité ; et pour que cette légitimité soit entière, il ne suffit pas que le colonisé soit objectivement esclave, il est nécessaire qu'il s'accepte tel. En somme le colonisateur doit être reconnu par le colonisé. Le lien entre le colonisateur et le colonisé est ainsi destructeur et créateur. Il détruit et recrée les deux partenaires de la colonisation en colonisateur et colonisé : l'un est défiguré en oppresseur, en être partiel, incivique, tricheur, préoccupé uniquement de ses privilèges, de leur défense à tout prix; l'autre en opprimé, brisé dans son développement, composant avec son écrasement.

De même que le colonisateur est tenté de s'accepter comme colonisateur, le colonisé est obligé, pour vivre, de s'accepter comme colonisé.

Fonte:

MEMMI, Albert, *Portrait du colonisé*. Gallimard, Paris, 1985.

aurka obratzen da zanpaketa, baina eskema berbera da beti. Ideialogia kolonizatzailean leku garrantzitsua dagokie kolonizatuaren erretratuari eta betebeharrari. Egiatik urrun dagoen ezagupide bat nahi bada, jakina; baina beharrezkoa, eta ideialogiaren barruan gotorra. Eta ideialogia horri bere baietza ematen dio kolonizatuak: asalduz, ez osoki; baina emana halere.

Horra hor modan dauden idea horiei dagokien egi-atal bakarra: menpetasunezko konplejoa, kolonigarritasuna, eta abar. Bere bilakabidearen une batean badago, eskierki, kolonizatuaren aldetik, kolonizatzailearekiko halako jaiera edo atxikimendua. Atxikimenduhau, ordea, ez da kolonikuntzaren iturria edo jatorria, ondorio eta fruitua baizik. Kolonitar okupazioaren *ondoren* sortzen da, eta ez okupazio hori baino lehenago. Kolonizatzailea jaun eta jabe osoki izan dadin, ez da asko objetiboki hala izatea: bere bidezketasunean ere sinetsi behar du. Eta alderantziz bidezketasun hori osoa izan dadin, kolonizatu objetiboki jopu izatea ez da aski: bere halakotzat jotzea ere behar da.

Hitz batez, kolonizatuak onartu egin behar du kolonizatzailea. Kolonizatzailearen eta kolonizatuaren arteko lotura, horrela, puskatzailea eta eraikitzailea da batera. Kolonikuntzaren bi gudakideok apurtzen eta piztutzen ditu: kolonizatzailea eta kolonizatu. Bata zanpatzaile, erdipurdiko izaki, gizatxar, arrakero, bere abantailez tematua, itxuraldatua agertzen da; bestea berriz, zanpatu gisa, bere hazkundean moztua, bere desegintzarekin tratuan ari.

Kolonizatzaileak bere burua kolonizatailetzat onartzeko zirikatua eta bultzatua den bezela, kolonizatuak, bide beretik, biziko bada, bere burua behar du onartu kolonizatutzat.

Iturburua:

MEMMI, Albert, *Kolonizatuaren ezagugarria*. Jakin, Arantzazu-Oñati, 1974.